

FILM LABURREN V. LEHIAKETA “ESTELLA-LIZARRA HIRIA” 2009URTEA

OINARRIAK :

1.- PARTE-HARTZAILEAK

1.1.- Banakakoak edo taldeak.

1.2.- European eta Latinoamerikan egoitza dutenak edota leku horietan jaiotakoak.

2.- MODALITATEAK

- ARGUMENTUA: Gai libreko fikziozko obrak.
- DOKUMENTAL: Gai libreko dokumentalak.
- *MINIMETRAJE* EDO *POCKET FILMS*: Gai libreko fikziozko obrak.

2.1.- Obra batek ezin du parte hartu modalitate batean baino gehiagotan.

3.- BALDINTZA TEKNIKOAK

3.1.- Obrak DVD euskarrian aurkeztu beharko dira, egiteko erabili den jatorrizko iturria edozein dela ere, eta gutunazal itxi batean: oinarri hauekin batera dagoen fitxa eta NANaren fotokopia, pasaporte, etab. **Dokumentazio hori ez da formatu digitalean onartuko**. Datu horiek ematen ez badira, paperean, kanporatzeko arrazoia izan daiteke.

3.2.- Parte hartzaile bakoitzak, banan-banan nahiz taldean, gehienez ere bi lan aurkez dezake lehiaketara. Produkzio bakoitzaren iraupen osoak ezin izanen du 30 minutuak gainditu, “Dokumentala” eta “Argumentua” modalitateetan, ezta 5 minutuak ere “*Minimetraje* edo *Pocket Films*” modalitatean, zerrenda-kredituak barne.

3.3.- Gaztelania ez den beste hizkuntzetan aurkeztutako obrak, azpitoluak eramanen dituzte hizkuntza horretan.

3.4.- Bi lan aurkezten bada:

- Obra bakoitza aurkeztuko da zinta edo DVD batean.
- Obra ezberdin batzuk onartuko dira zinta edo DVD berean, Prestakuntzarako Zentro Ofizialak, Ikus-entzunezkoak Banatzeko Enpresak edota Elkarteak badira eta alde aurretik jakinarazten badute.
- Inskripzio-fitxa bana egin beharko da obra bakoitzeko.

3.5. Obrak izanen dira 2008ko urtarrilaren 1ean baino geroago eginak.

3.6. Lehiaketa honetan aurreko ediziotan aurkeztutako obrek ezin izanen dute berriro parte hartu.

3.7. Obrak aurkezteko epea **2009o urriaren 1etik 31ra** bitartean luzatuko da. Lanak ondoko helbide honetara bidaliko dira:

CASA DE LA JUVENTUD “MARÍA VICUÑA” GAZTERIAREN ETXEA
K/ Nabarrería, 62. 31200 ESTELLA-LIZARRA (Nafarroa)
Norentzat: FILM LABURREN IV. LEHIAKETA “ESTELLA-LIZARRA HIRIA”

4.- EPAIMAHAIA

4.1.- Estella-Lizarrako Udaleko Gazteria Batzordeak epaimahaikideak izendatuko ditu, bai Erakustaldian proiektatuko diren film-laburren hautapen faseetan parte hartuko dutenak, bai saria jasoko duten lanak izendatzeko aukeraketan.

4.2.- Epaimahaiaren erabakiak behin betikoak eta aldaezinak izanen dira.

5.- SARIAK

5.1.- Lehiaketak honako sari hauek banatuko ditu:

- ARGUMENTUA: 700 euro

- DOKUMENTALA: 700 euro

- *MINIMETRAJE* EDO *POCKET FILMS*: 400 euro

- Saria BERTAKO EGILEAREN lan hoberenari, aurreko edozein modalitatean: 400 euro

- Sari berezia EGILE GAZTEARI: 400 euro. Sari hau jaso ahal izanen dute 1979ko urtarrilaren 1ean baino geroago jaiotako zuzendariak.

- Hautatutako filme laburrak Filme Laburren Erakustaldi batean erakutsiko dira, eta bertan etorritakoek PUBLIKOAREN SARIA aukeratuko dute: 400 euro

5.2.- Obra bakoitzak sari bakarra jaso dezake, publikoaren saria izan ezik.

5.3.- Sariari aplikatuko zaizkie dagozkien legez ezarritako zerga-atxikipenak.

5.4.- Saria jasoko duten egileek beraiek etorri beharko dute (edo ordezkaria bidali etortzea ezinezkoa bazaie) sari emanaldiaren ekitaldira, horretarako adieraziko den lekuan, datan eta orduan.

5.5.- Epaimahaiak sariren bat eman gabe utz dezake.

6.- OBREN ERABILERA ETA OINARRIAK ONARTU

6.1.- Parte hartzen duten obra guztiak Estella-Lizarrako Gazteria Zinegotzigoaren esku geratuko dira eta "Maria Vicuña" Gazteriaren Etxeko Bideotekaren parte izatera igaroko dira. Eskubidea gordeko da aurkeztutako obrak erreproduzitzeko, beti ere merkataritza erabilera egin gabe eta egilearen izena aipatuz.

6.2.- Deialdi honetan parte hartzeak esan nahi du egileak oinarriak onartzen dituela.

7.- Izena emateko fitxa eta argibide gehiago: juventud@estella-lizarra.com.
Telefonoa 948 548224-948 556329